



## **INFORMAZIO-OHARRA**

Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak legez baimenduta dagoen lehiaketa federatuak egitea, 100.000 biztanleko 500etik gorako kutsatze-tasa duten udalerrien mugikortasuna eta kirol-jarduera federatua murrizteak erabat ezinezko egiten du, oraingoz behintzat, lehiaketara futbolean eta areto-futbolean itzultzea.

Adibide gisa, adierazi behar da gaur egun gure Federazioari atxikitako 80 futbol-klubetatik 49k, 35etik 19k areto futbolaren kasuan, ezin dutela inolako entrenamendurik egin, profesionaltzat edo erdi-profesionaltzat katalogatutako lehiaketetan izan ezin. Zoritxarrez, pandemiari buruzko datuek okerrera egin dute nabarmen azken asteetan, eta horrek erantzukizun-ariketa bat egitera behartzen gaitu.

Horregatik, futboleko eta areto-futboleko lurralde-lehiaketak ez dira berriro hasiko osasun-egoera nabarmen hobetu arte. Lehiaketa bat berdintasun-baldintzetan egiteko benetako aukera dagoenean, proposamen zehatz bat egingo zaie klubei. Data-eskasia dela-eta ezin bada lehiaketa normalizatu bat egin onartutako egutegiaren eta baldintzen arabera, adiskidetasunezko lehiaketa-egutegi bat planteatuko da, eremu geografikoen arabera eratutako taldeekin, mugikortasuna murrizteko, izen emate askekoa eta igoyerarik eta jaitsierarik gabekoa.

FUTBOLEKO GIZONEZKOEN OHOREZKO MAILAri erreparatuz, estatu-mailara igotzeko plaza bat ematen duen lehiaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak gaur bertan erdi-profesionaltzat jo ondoren, premiazko bilera bat egingo da kategoria horretako klubekin, lehiaketa honen antolaketa adosteko.

Gipuzkoako Futbol Federazioa klubean esanetara geratzen da edozein alderdi interesgarriaren berri emateko, eta futbolean eta areto-futbolean entrenatzeko saioekin jarraitzera animatzen dugu, bai federatua, bai eskolakoa, horretarako aukera ematen den udalerrietan, ezarritako protokoloak betez eta egoera mingarri horietan gizarte-erantzukizunaren eredu izanik.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 29

